



NIRE LAGUN GUZTIENGATIK!

Ikasturte honetan zuen ingurunea hobetzeko dituzuen ideia onak nabarmentzea proposatzen dizuegu, eta ideia horiek handiro ospa ditzazuela azaroaren 20an, Haurtzaroaren Egun Unibertsalean. Denon artean ospakizun hori gogoangarria izateko plan bat egin dezakegu. Alda ditzagun jokoaren arauak!

Helburuak

Ikasleen adinaren eta heldutasun mailaren arabera:

- Haurren parte-hartzea eskubide eta erantzukizun moduan aintzatestea.
- Talde-lanaren, arazoak konpontzearen, plangintzaren eta elkarrizketaren gaitasunak indartzea.
- Hurbileko arazo bat identifikatzen lortzea eskubideen ikuspuntu batetik: Zer eskubide lotzen dira egoera horrekin?
- Arazoa konpontzeko helburu bat definitzea: zehatza, taldeak lortu dezakeena, parte-hartzaileentzat eta onuradunentzat garrantzitsua eta neurgarria dena, eta ikasturtean zehar lor daitekeena.
- Ezarritako helburua lortzeko plan bat egitea, eta plan horren garapenarekin konpromisoa hartzea.



Material beharrezkoak

- Plangintza-fitxen koadernoak: "Nigatik eta nire lagun guztiengatik: 6 urrats mundua aldatzeko nire ikasgelatik". Eskuragarri deskargatzeko eta pertsonalizatzeko hemen: unicef.es/eus/educa/partaidetza
- Espazioa izatea horma batean plana zabaltzen joateko.
- Paper jarraikoa, kartoi mehea, folioak, post-it, etab.
- Idazteko, koloreztatze eta collage egiteko materiala.
- Gure planaren elementuei laguntza bisuala emango dioten irudiak, ebakinak eta elementuak.

Laguntza-materiala

- "Hegoak emanez parte hartzea: Ikasgelan eta ikastetxean parte hartzeak ikasle bakoitzaren potentzial maximoa garatzen laguntzeko ideiak", haurren parte-hartzearen gaineko eskubideen eta mundu mailako herritartasunaren hezkuntza-jardueren eta -baliabideen gida, hemen: unicef.es/eus/educa/partaidetza
- "Parte-hartzearen gaineko glosarioa": dokumentu horretan, haurren parte-hartzearekin eta horrekin lotutako eskubideekin, erantzukizunekin eta gaitasunekin lotutako kontzeptuen gaineko definizio errazak aurkituko dituzue. Eskuragarri hemen: unicef.es/eus/educa/partaidetza

Jarduera honen lehenengo zatian, talde moduan kezkatzen gaituen gure inguruneke arazo bat hautematen lan egingo dugu. Agian, gai hori dagoeneko atera da haur hezkuntzako ikasleekin egiten ditugun batzarren batean edo lehen eta bigarren hezkuntzako tutoretzatan. Ikasgelan kontsulta bat egin dezakezue eta botazio bidez, landu nahi duzuen arazo berezia aukeratu dezakezue. Gaia librea da: ingurumena, bizikidetzatza, espazioen eta denboren erabilera, kausa solidario bat, etab. Arazoak guri edo beste haur edo nerabe batzuei eragin ahal die; kontua da nahikoa garrantzitsua izan behar dela taldea mobilizatu dadin, eta irtenbide zehatzak eta gure ingurunerako egokitutakoak bilatzeko eta garatzeko.

Arazoa identifikatu ondoren, arazo hori eskubide batekin lotzeko gai izan behar dugu, eta hori konpontzeko izan beharreko erantzukizunaren gainean hausnartu behar dugu; hori garrantzitsua da.

Bigarren alderdia, arazoa konpontzeko plan bat lantzea da. Horretarako, honako helbide honetan eskuragarri dagoen fitxen koadernoak deskargatu dezakezue: unicef.es/eus/educa/partaidetza. Koadernoak hainbat fitxa ditu, proiektuak garatzeko zenbait metodologiaren eta tresnaren egokitzapen bat direnak, eta zeinari esker prozesua gidatu baitaiteke ideia definitzen denetik proiektua komunikatzen den arte. Bi bertsio daude: bat haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzat, eta beste bat lehen hezkuntzako bigarren zikloko eta bigarren hezkuntzako ikasleentzat; hala ere,

behar diren aldaketak egin daitezke jarduerak sinplifikatzeko edo aberasteko.

Fitxak inprimatu egin daitezke, formatu handiago batera egokitu daitezke (esaterako, kartoi meheetara), horien gainean idatzi daiteke, post-it batekin osatu daitezke edo oinarri moduan erabili daitezke, plana modu erabat bisualean islatuko duen collage bat egiteko. Fitxak, definitzen diren heinean, ikasgelako toki ikusgai batean geratzen dira, gure ideia martxan jartzen dugun bitartean berrikusi ahal ditzagun. Fitxekin batera, eskuaren irudia jarriko dugu, denok sinatu dezakeguna gure proiektuarekin dugun konpromisoaren zigilu moduan.

Formula baten bidez egin daiteke sinadura, non parte-hartzaile bakoitzak bere eskua jarriko duen marrazkiaren gainean, eta honako hau esango du sinatu aurretik "Nigatik eta nire lagun guztiengatik." Parte-hartzaile bakoitzak bere eskubideak betetzearen eta beste pertsona batzuen eskubideak betetzearen artean existitzen den lotura hauteman beharko luke, eta ulertu beharko luke bere eskubideak eta gainerako haurren eskubideak babesteko erantzukizuna duela; hori garrantzitsua da.

Azaroaren 20ko astea da landu duzuen lana garatzeko eta haurren parte-hartzea haurrentzako jolas bat baino gehiago dela erakusteko unea. Zabaldu, denek zuen ospakizuna ezagutu dezaten! Eskerrik asko haurrentzako egun hain garrantzitsu hau ospatzeagatik!



FITXAK (I)

[illegible]

1. Gure ideiaren definizioa:

ideia bat izatea ez da nahikoa arazo bat konpontzeko, baina ideiarik gabe ere ez dugu lortuko. Taldeak ideia hori adostu behar du (esaterako, botazioaren bidez).

[illegible]

2. Hartzaileak identifikatzea:

nori egiten dio mesede ideia horrek?, nolakoak dira, zer behar dute?, guri ere mesede egiten al digu? Arazoaren konponketan beste batzuei lagunduz eta lankidetzan arituz, kide bihurtzen gara.



Gure taldea

Proiektuaren izena

Honela osatuko dugu gure proiektua:

Nor gara?

Hau da gure taldearen:

Zereginak eta rolak

Honela banatu dugu lana:

Zein da gure lema?

Euski hitz aurkitu dugu lema irakurri:

10001 edukiak/edukiak/hasierak

3. Taldea aintzatestea: talde legez

modu eraginkorrean lan egin ahal izateko, kideek taldearen parte direla sentitu behar dute. Horrek sormena eta motibazioa eskatzen du (izen bat, lema bat, etab. aukeratzea), baita ataza praktikoak eta betearazleak burutzea ere (atazak eta rolak banatzea).

FITXAK (II)

Jarduerak

Nola gauzatuko dugu ideia hori?

Zer urritxo egingo ditugu eta nola antolatuko gure...

Zeroginen-zerrenda

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-

Denboraren lerroa

100% 0%

4. Jardueren plangintza: fase horren konplexutasuna taldearen heldutasun mailaren arabera izango da neurri handi batean; izan ere, planifikazioaren gaitasunek nabarmen eboluzionatzen dute haurtzaroan eta nerabezaroan zehar. Haur txikiagoentzat oso interesgarria izan daiteke oinarri moduan hartzea plangintza-gaitasunak lantzeko ohiturak, ohitura horiek bizikidetzakoak, higienekoak, elikadurakoak edo beste batzuk izan daitezkeelarik; aitzitik, nagusiagoek programa konplexuagoak landu ditzakete, proiektuak garatzeko metodologietan oinarriturik (hemen eskuragarri dagoen glosarioan unicef.es/eus/educa/partaidetza hainbat adibide daude).

Baliabideak eta kolaboratzaileak

Zer dugu?

Hau behar duzue: zer dugu gehiago behar duzue? Zer dugu gehiago behar duzue? Zer dugu gehiago behar duzue?

Zer gehiago behar dugu?

Hau da: dugu eta beste pertsona batzuek ez dugu...

Nork lagundu ahal gaitu?

Hau da: dugu eta beste pertsona batzuek ez dugu...

5. Baliabideak eta kolaboratzaileak identifikatzea:

gure ideia martxan jartzeko, zer baliabide eta gaitasun dugun jakin behar dugu, zein eskuratu ditzakegun eta nork lagundu ahal dugun horiek lortzen. Laguntzen diguten pertsonak gure kideak dira baita ere!

Komunikazioa

Nola kontatuko dugu?

Gure ideia jende askok entzuteko nola dugu, nola kontatuko dugu...

Zer baliabide erabiliko ditugu?

Aldizkari: irratia edo irrati bikoitza, sare sozialak, etab.

6. Komunikazioa: proiektu baten alderdi garrantzitsu bat, sarritan ahazten dena, komunikazioa da: nola informatuko ditugu onuradunak?, informazio-materialak sortu behar al ditugu?, aurkezpen bat egingo al dugu?, zer komunikabide erabiliko dugu?, jar al gaitzke beste batzuekin harremanetan mezua zabaltzen lagun gaitzaten (esaterako, tokiko komunikabideekin edo UNICEFekin)? Gure proiektua zenbat eta jende gehiagok ezagutzen eta babesten duen, kide gehiago izango dugu.

GOMENDIO BATZUK:

- Zuen kanpaina sare sozialetan zabaltzen baduzue, erabili **#HegoakEmanezHezi** eta **#PorTodosMisCompañeros** hashtag-ak ahalik eta jende gehienak ikus dezan.
- Egin prozesuaren, fitxen eta eskuaren argazkiak zuen sinadurekin. Egin proiektuaren argazkiak ere, betearazpen-prozesuan dagoenean eta jakinarazten duzuenean. Argazki horiei guztiei esker, beste batzuek zuen proiektua ezagutuko dute eta denborarekin, egindako lan guztiaren ikuspegi bat izango duzue.
- Ziurtatu argazkia ateratzen diezuen pertsonak argazkian ateratzeko baimena ematen dizuetela. Batzuetan, argazkien ordeaz, marrazkiak egin daitezke!
- Antolatu erreportari-talde bat, jardunaldiaren jarraipena egin dezaten eta zuen blogerako edo honako webgune honetarako post bat idatzi dezaten: www.unicef.es/eus/educa/blog
- Ekitaldira tokiko komunikabideak gonbidatu nahi badituzue, bidali iezaiezue lehenik deialdi bat eta prentsa-ohar bat.
- Zuen jakinarazpenetan, gogoratu eskerrak ematea zuen proiektuan lagundu dizuetenei.
- Aurkitu jarduera hori garatzeko ideia gehiago hemen: unicef.es/eus/educa/partaidetza

